



DATUEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIO OSAGARRIA ETA XEHETASUNAK

Tratamendua: Erreklamazio, iradokizun eta esker-emateen orria.

Arduraduna: OSATEK, SA.

IFK: A01126309.

Posta-helbidea: Urkixo zumarkalea, 36, 5. – 48011 – Bilbo (Bizkaia).

Telefonoa: 94 400 7112.

Posta elektronikoa: informacion@osatek.eus.

Datuen Babeserako ordezkariarekin (DBO) harremanetan jartzeko:

dpd@osatek.eus.

Xedea: Interesdunak egindako erreklamazio, kexa, iradokizuna edo esker-ematea erregistratzea eta tramitatzea.

Bildu ziren xedea lortzeko beharrezkoak diren bitartean gordeko dira datuak, edo interesdunak datuok ezereztea eskatzen ez badu, eta xede horren eta datuen tratamenduaren ondorioz ager daitezkeen erantzukizun posibleak zehazteko beharrezkoa den epean. Kontsumitzaile eta erabiltzaileak babesteari buruz indarrean dagoen araudian ezarritakoa aplikatuko da.

Legitimazioa: DBEO: 6.1.a) Xede espezifiko bat edo batzuetarako, bere datu pertsonalak tratatzeko baimena eman du interesdunak.

DBEO: 6.1.c) Tratamenduaren arduradunari aplikagarri zaion lege-obligazioa betetzeko beharrezko tratamendua.

Abenduaren 22ko 6/2003 Legea, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuari buruzkoa.

Uztailaren 1eko 142/2014 Dekretua, kontsumoko erreklamazio-orriei eta kontsumitzaileen eta erabiltzaileen kexa, erreklamazio eta salaketei erantzuteko prozedurari buruzkoa.



Norentzat: Datuak legeak aginduta baino ez zaizkie lagako eskumena duten administrazio publikoei, eta, kasuan kasu, dagokion aseguru-konpainiari, ezbeharraren tramitazioa egiteko xedearekin.

Eskubideak: Interesdunak eskubidea du bere datu pertsonalak atzitzeko, baita datu okerrak zuzentzeko eskatzeko ere; edo, hala badagokio, datuok kentzeko eskatzeko, baldin eta, besteak beste, datuak jada beharrezkoak ez badira jaso ziren helburuetarako. Inguruabar jakin batzuetan, interesdunak bere datuen tratamenduari uko egin ahal izango dio, edo tratamendua mugatzeko eskatu ahal izango du. Hala bada, erreklamazioak egiteko edo haien aurrean defendatzeko soilik gordeko dira datuak.

Interesdunak berez erabil ditzake eskubide horiek, OSATEK, SA-ko Datuen Babeserako ordezkariarekin (DBO) harremanetan jarrita. Horretarako, idazki bat igorriko du aipatutako helbidera edo dpd@osatek.eus helbide elektronikora. Era berean, eskubidea egiteko ereduak edo inprimakiak helaraziko zaizkio interesdunari.